altza

Betirako bolondres

Urte bukaerako aste honetan auzokide nabarmen bat ekarri nahi dugu gure orrialdera: Angel Escuadra, Gipuzkoako Gurutze Gorriko kideaz ari gara. Ez da gainera nolanahiko kidea, erakunde honek Gipuzkoan duen bolondres zaharrena baita. 86 urte ditu, 1942tik egiten du lan Gurutze Gorrian eta urte hauetan era guztietako ezbehar eta gertaerak ikusi behar izan ditu.

Aurten, irailaren 18an Gurutze Gorriak omenaldi berezia prestatu zion urte hauetan guztietan egindako lana eskertzeko.

Angelek dioen moduan, zeharo desberdina da garai haietako eta oraingo bolondresen egoera eta lan egiteko modua eta baita kopurua ere. Dena den, jendea ez dago behin ere soberan eta bolondres gehiagok parte hartzea ez legoke gaizki, *«nahiz eta teknika aldetik aurrerapen ugari egon jende gehiago izatea ez legoke gaizki»*.

Angel Escuadra odol emailea dugu eta urtean bizpahiru aldiz ematen du odola, berak dioen bezala, *«odol emaile baino odol hornitzailea dirudi»*.

Angelen nahia besteei laguntzeko prest dauden gazte bolondresak sortzea litzateke horrek *«bizitzari poz berezia ematen diolako, azken finean, bizitzen jarraitzeko arrazoi bakarra bihurtzen baita»*.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



Angel Escuadrak 86 urte ditu, 54 urte daramatza Gurutze Gorrian bolondres gisa eta ez du uzteko inolako asmorik.

herrera

Euskal Giroa elkartea datorren San Sebastian bezperarako danborrada prestatzen ari da dagoeneko. Hori dela eta, datorren urtarrilaren 7, 8, 9, 13, 14 , 15 eta 16an 20.00etatik aurrera elkartean izango diren entsaioetarako deialdia zabaldu du. Danborrada honetan parte hartu nahi dutenentzako elkartean zerrenda berezi bat prestatu da. Elkartearentzat auzotarren parte hartzea oso garrantzitsua da, azken urte hauetan jende gutxik parte hartu du eta jendeari animatzeko eskatu diote.

•

Bidebieta I edo Gaiztarron, iaz hasi zuten ekimenari jarraituz, eguberrietako jaiotza berezia prestatu dute bertako dendari eta bizilagunek. Auzogunearen lorategian Olentzero eta jaiotza jarri dituzte musikaz lagundurik.

Jaiotza hau inguruetako bakarra da, Herrera eta Bidebietako eguberri apaingarri bakarra Udalak jarritako pinua baita.

El Andorrano
1860tik zurekin
Alkandorak • Lentzeria
Garibai, 11 • DONOSTIA - Tfnoa.: 42 06 07

MIKELA
Loradenda eta opariak
Zorionak!!!
• Erregetako opariak
• Ezkontzarako lore sortak
• Oparietarako lore sortak
• Lore zentruak: naturalak eta leborrak
• Koroiak
• Barnen eta kanpo dekorazioak
• Opariak
• Zeramika
• Forjaketa osagarriak
Etxerako zerbitzua • Igandeetan irekita
Bilbo plaza 2 • Tfnoa.: 42 36 25

Casa de Labores
1930ean sortua
Jostura eta tapizeriak
Artile eta hari-kontuetan etxerik hoberenak
Elkano, 5 Tfnoa: 42 02 05 Donostia

Madril hiribidea, 13 • Tfnoa.: (943) 47 45 77
Tindategi azkarra
vitsec
Ordu betean kalitatea
Mirakruz, 13 • Tfnoa.: (943) 29 20 52